



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

DEBAGOIENENKO JAIALDI BAT DISEINATU, ANTOLATU ETA GARATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

1. KONTRATUAREN HELBURUA:

Jaialdi baten diseinua, antolaketa eta garapena. Jaialdia 2015ko urriaren 23, 24 eta 25 izango da Bergaran eta inguruko herrietan, Debagoiengan.

2. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK:

2.1. Jaialdiaren deskripzioa

Jaialdiarekin ekintzaz beteriko astebukaera proposatzen da Debagoiengan. Guztiontzako proposamen erakargarriak eskainiko dira, Debagoiengan dauden kultura, turismo, ondare eta pertsonen aberastasun guztien erakusleioa izanik.

2.2. Jaialdiaren kokapen guneak

Bergarako erdigunea eta Debagoieneko herrietan.

3. HELBURU OROKORRA

Jaialdiaren bidez Debagoiena eskualdea lurralde desberdinetatik etorritakoen topagune bihurtuko da eta aldi berean, helburua da Debagoieneko erakusleio izatea gure ondare historikoa, artistikoa eta naturala erakusteko eta ezagutzeko.

Jaialdiaren bidez Debagoieneko kultura, turismoa.. eta Debagoiengan dauden biztanle guztien kultura ezagutaraztea da.

Jarduera honekin eskaintza integrala luzatu nahi da; eskualdeko irudia Euskal Herrian zehar zabalduz eta aldi berean, turismoa, natura-turismoa eta aisialdiko eskaintza kulturala zabalduz.

Horrela,

- Debagoieneko eskaintza kulturala eta turistikoa zabaltzeko ohizko garaietatik kanpo eta Euskal Herriko eskaintzaren barnean kokatzeko jaialdia izango da.
- Debagoiengan bizi diren beste kultura batzuk ezagutzeko aukera ematea (musika, gastronomia, hizkuntza, artisautza...) bertakoa lehenetsiz.
- Bertako produktuak eta bertako ekoizleak, artisauak indartzea.
- Adin guztietako publikoetara zuzenduriko jaialdia.
- Eztabaidarako foro eta gune multikulturalak antolatzea.
- Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren ekitaldiaren antolaketaren oinarri izatea.
- Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren ekitaldiaren finantziaketaren oinarri izatea.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- Debagoieneko musika, kultura, ...taldeen erakustoki izatea.
- Musika eskaintza izatea eta baita ere, kale animazioa.
- Debagoieneko kultura eta natura turismoko baliabideak eskaintzea eta promozionatzea horretarako jaialdiaren barnean eskaintza sortuz.
- Herritar guztiena den ekitaldi bat dela sentiaraztea, ekitaldia antolatzen herritarren eta eragileen partehartzea sustatuz eta horrekin jaialdia antolatzen den herriaren identitatea isladatuz.
- Jaialdia antolatzen den herriak erabakiko du urte horretako jaialdiaren gaia eta gai honen inguruan Debagoieneko taldeen partehartzea sustatu beharko da.
- Debagoieneko biztanleak eskualdean zehar mugitzea, herri batetik bestera.
- Bisitariak erakartzea Debagoienera eta jarduera ekonomikoa sortzea Debagoiengan.

4. KONTRATATZEN DIREN LANAK:

4.1. Jaialdia prestatzeko fasean:

-Jaialdiaren edukien eta egituraren diseinua zehaztea Debagoieneko Mankomunitateko irizpideen arabera.

- Jaialdia prestatzeko fasean martxan jarriko diren Lan Taldeetan parte hartzea.
- Jaialdia burutzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak zehaztea.
- Jaialdia burutzeko beharrezkoak diren zerbitzuak, artistak,... harremanetan jartzea hauek kontratatuz.
- Jaialdiaren antolaketa; jaialdia burutzeko beharrezkoak diren materialak alokatzea, garraiatzea. Jaialdia antolatzen den herriak dituen baliabide teknikoak zehaztuko ditu eta jaialdiaren antolaketa enpresak erabiliko ditu, beti ere, jaialdia amaitutakoan material hauen hasierako egoera mantenduz.
- Jaialdiaren promozio eta publizitate kanpaina diseinatzea sortzen diren euskarriak Debagoieneko Mankomunitateak burutuko duen publizitate kanpaina erabiltzeko aukera izanik.
 - Jaialdiaren irudiaren diseinua
- Jaialdiaren promozio euskarriak (foiletoak, kartelak) diseinatu, argitaratu eta banatu jaialdiaren zabalpena egiteko.
- Jaialdiaren web infoa www.turismodebagoiena.com web orrialdean kokatuko da baina honen edukiaren diseinua egin beharko da.
- Jaialdiaren finantziaketa bideen bilaketan Debagoieneko Mankomunitatearekin elkarlana egitea.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- Mankomunitatearen logoa jartzea egiten diren promozio eta publizitate jarduera guztietan.

4.2. Jaialdiaren garapenean:

- Jaialdiko zonalde desberdinen muntaia eta desmuntai lanak egitea dagokion Udalaren eta Mankomunitatearen irizpideen arabera.

- Jaialdiko pertsonen, guneen eta aktibitateen kudeaketa, garapena, dinamizazioa, jarraipena eta koordinazioa.

- Jaialdiaren informazioa gunea izatea eta honetan harrera eta informazio zerbitzuak eskaintzea.

- Aktibitateen kontrol teknikoa gauzatzea.

- Aktibitateetan erabiltzaileen kontrola eta baita ere, arazoek konponbidea.

- Jaialdiko guneen zainketa jaialdia itxita dagoen orduetan.

- Jaialdiko aktibitateen garapena.

4.3. Jaialdia burutu ondoren:

- Jaialdirako erabili behar diren espazioak, jaialdiaren muntaia lanak hasi baino lehenago zeuden moduan uztea.

- Jaialdiaren memoria aurkeztea jaialdia amaitu eta hilabeteko epean.

5. MANKOMUNITATEAREN KUDEAKETA

Mankomunitateak

- Enpresarekin harremanak izateko arduradunak izendatuko ditu.
- Jaialdiaren planifikazioa eta programaketan parte hartuko du.
- Jaialdiaren aurkezpena babesleen aurrean egin behar denean parte hartuko du.
- Jaialdiaren ebaluaketaren diseinuan eta garapenean parte hartuko du.
- Beste erakunde batzuekin koordinazio lanen ardura izango du, esaterako Udalekin, elkarteekin....
- Jaialdia burutzeko herrian behar diren baimenak lortzeko ardura izango du.
- Garraio publikoaren kudeaketaren ardura

Jaialdia egiten den herriaren ardura izango da:

- Guneen garbitasuna jaialdia irauten duen egunetan.
- Argindarraren eta uraren hornidura jaialdia izango den gune desberdinetara.
- Beharrezkoak diren komunak jarriko ditu.
- Aparkaleku guneak zehaztuko ditu eta herriko trafikoaren kudeaketa.
- Udalak zehaztuko ditu dituen baliabideak jaialdiaren antolaketan erabili daitezkeenak gainontzekoak enpresak jarri beharko ditu.



6. BESTE BALDINTZA BATZUK.

- Enpresak aurkezturiko proiektua Mankomunitateak egokitzeko aukera izango du jaialdiaren helburuetara egokitzeko.
- Enpresak Mankomunitatearekin koordinazio bilerak izango ditu Mankomunitateak izendatutako arduradunekin.
- Enpresak jaialdia burutzeko beharrezkoa den pertsonala kontratatuko du.
- Jaialdiaren barnean antolatuko diren jarduera guztiak dohainezkoak izango dira. Bakarrik, kirol frogen garapenak eskatzen duen aseguru ordaindu behar du erabiltzaileak.
- Udalak ezarritako ingurumeneko irizpideak jarraitu beharko dira zaborren kudeaketaren inguruan.
- Enpresak proposatuko du jaialdiaren izena eta egokia ikusten bada Debagoieneko Mankomunitatearen izenean erregistratuko da Marken erregistroan inolako gainkostorik gabe.
- Jaialdia antolatzen den herrian jaialdia burutzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak (karpak, eszenatokiak...) herri hortako Udalak ez dituenak jaialdia antolatzen duen enpresak jarriko ditu.
- Enpresak jarriko ditu eskualdeko elkarteak behar dituzten karpak. Karpak argindarra izango dute eta gastronomiakoak ura ere bai.
- Pertsonen irisgarritasuna jaialdiko gune desberdinetara bermatu.
- Jaialdiko azoketan parte hartzen duten eskualdean erroldatutako artisauek, gastronomia enpresek,... ez dute ezer ordaindu beharko.
- Jaialdiaren antolaketa dela eta, enpresa esleipendunak sarrera pribaturen bat jasoko balu, ekintza berriak finantzatzeko erabili beharko du, azken Memorian, hala badagokio, jasotako sarreraren xehekapena eta helburua jasoz.
- Debagoieneko bertako eta Debagoiengan dauden beste kultura batzuen topagune izan behar da eta gutxienez eskualdeko ondorengo taldeen partaidetza lortu behar da:
 - Gastronomia arloan. Debagoieneko eta Debagoiengan bizi diren beste kultura batzuen ordezkariak. Gutxienez 5 stand.
 - Artisautza arloan. Debagoieneko eta Debagoiengan bizi diren beste kultura batzuen ordezkariak. Gutxienez 5 stand.
 - Eskualdeko Elkarteak; Debagoieneko elkarten presentzia lehenetsiko da. Gutxienez 5 stand

7. JAIALDIA DISEINATU, ANTOLATU ETA GARATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

HIZKUNTZA ERABILERARI BURUZKO IRIZPIDEAK

Erabilera herritarrekin

- Mezu idatziei dagokionez (kartelak, errotuluak, oharrak, esku programak, liburuxkak...), euskaraz edo elebietan idatzi beharko dira. Elebietan idatzitako testuetan euskarazko zatia bereziki nabarmendu beharko da.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- Gastronomía arloan, artisautza arloan eta eskualdeko elkarteek jarriko dituzten postuetan jarriko dituzten karteletako testuak eta produktuen izenak euskaraz egongo dira, edo bestela, euskaraz eta gaztelaniaz. (Hala jakinaraziko zaie idatziz parte hartuko dutenei). Horretarako laguntza behar badute Debagoieneko Mankomunitateak lagunduko die.
- Eszenatokietan jarriko diren pankartek ere aurrez aipatutako irizpideak bete beharko dituzte
- Informazio gunean egongo diren euskarriek ere irizpide hauek bete beharko dituzte.
- Ahozko komunikazioetan ere euskara erabiliko da. Bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari lehentasuna emango zaio, erderazkoaren aurretik azalduz. (lehen hitza, aurrez aurreko aurkezpenak, abisuak, bozgorailutik emandakoak,...)
- Gazteleraz diren ekintzak, kontzertuak kasu, euskaraz aurkeztuko dira.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Mankomunitateko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko. Maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio zuzentzea.

Hizkuntza irizpideak betetzen diren ikusteko neurketak egin beharko dira egun horietan.

Erabilera enpresa esleipendunarekin

- Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak gutxienez euskaraz egingo dira (kontratua, fakturak, memoria, bilerak, kontsultak...).
- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez;

8. GENERO BERDINTASUNA.

Genero-ikuspegia, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea proiektua garatzerakoan eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak txertatzea.

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2015eko ekainaren 18an egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2015eko ekainaren 19an.
IDAZKARIA.- Belén Txintxurreta**